



# **NERABEZAROA ETA DIBERTSITATE AFEKTIBO-SEXUALA**

*Ikerketa*

**“GAZTEEK HOMOSEXUALITATEAREN  
AURREAN DITUZTEN JOKABIDEAK”**

*2010-2011 Ikasturtea*



2010-2011 ikasturtean zehar, eta Donostian derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikastetxeetan egiten aritu diren jarduerekin batera, inkesta bat egin zaie horretan parte hartzeko borondatea agertu duten ikastetxeetako ikasleei.

**Lagina:** 14 eta 18 urte bitarteko 609 ikasle.  
**Mutilak:** 327  
**Neskak:** 282


HdH programa (Hitz egin Dezagun Homosexualitateaz) ikasgeletan garatu aurretik egindako inkesta honek 15 galdera biltzen ditu, eta horien bidez, homosexualitateak, bisexualitateak eta transexualitateak lagin horretako norbanakoen artean eragiten dituen erreakzio emozionalen azterketa bat egin nahi izan dugu, eta halaber, erreakzio horiek norbanakoen taldeko bizitza zein eratan baldintzatu dezaketen ere ikertu nahi izan dugu.

Lagineko norbanakoek duten genero-aldagaia erantzunean kontuan hartzea eta islatzea garrantzitsua den galderetan, xehetasun hori agertaraziko da, eta hala egiten ez bada, ulertu behar dugu xehetasun hori ez dela esanguratsua.



## 1. Lehen galdera

Galdera honen bidez jakin nahi dugu gazteek noizbait ikusi, entzun, egin edo jasan dituzten homosexualitatearekin loturik dauden jokaera jakin batzuk. Emaitza hauek lortu dira.




- Irainak entzun dituzte: % 82,92
- Zurrunurru eta iritzi negatiboen lekuko izan dira: % 84,07
- Isekak, imitazioak... entzun dituzte: % 73,40
- Mehatxuen lekuko izan dira: % 25,78
- Gauzak botatzen ikusi dute: % 30,05
- Jipoiak lekuko izan dira: % 11,99
- Bazterketa ikusi dute: % 40,72




- Irainak egin dituzte: % 24,30
- Zurrumurru eta iritzi negatiboen egile izan dira: % 24,96
- Isekak, imitazioak... egin dituzte: % 16,26
- Mehatxatu egin dute: % 4,11
- Gauzak bota dituzte: % 8,54
- Jipoi-emaile izan dira: % 0,99
- Bazterketa eragin dute: % 9,69

## TRATU HOMOFOBIKOAREN EGILEAK





- Irainak jaso dituzte: % 5,25
- Zurrumurru eta iritzi negatiboen biktima izan dira: % 7,22
- Isekak, imitazioak... jasan dituzte: % 4,11
- Mehatxatuak izan dira: % 0,66
- Gauzak bota dizkiete: % 1,15
- Jipoiak biktima izan dira: % 0,33
- Baztertuak izan dira: % 2,46






Tratu homofobikoaren (horren aldaeraren batean) lekuko izan diren norbanakoen portzentaje handia dagoela ikus daiteke, eta zurrumurrak eta irainak dira denen artean nabarmenenak. Tratu homofobikoaren pertzepzio maila berdintsua da bi sexuetan, nahiz eta neskak sentikorragoak diren bazterkeriaren aldagaiaren aurrean; gizonaek bazterkeriaz duten pertzepzio maila baino % 12 handiagoa da emakumezkoena.

Mutilak tratu homofobikoaren egile nagusitzat agertzen dira horren aldaera guztietan, eta iraina eta zurrumurrak dira, aldiz, nesken agerbide nagusiak.

Nabarmentzekoa da tratu homofobikoaren biktima izan diren nesken ehunekoa mutilena baino handiagoa dela alderdi guztietan, isekarenean izan ezik, baina aldiz, neurri txikiagoan aitortzen dute horrelako ekintzen egiletasuna. Eta horrek inkongruentzia edo iruzur bat adierazten du lekuko edo biktima gisa bizi dituzten gertakarien eta egile gisa bizi dituztenen artean.

Deigarria da, oso, tratu homofobikoaren (horren aldaera guztietan) lekuko izan direla aipatu duten gazteen ehuneko handia.





## 2. Bigarren galdera

Bigarren galderan pertsona gay, lesbiana, bisexual edo transexualik ezagutzen ote duten adieraztea eskatzen zaie, eta hurbiltasun maila aldagai gisa erabiltzen da. Emaitzak aztertzeko orduan, alde nabarmenak ikusi ditugu bi sexuen artean, eta beraz, emaitzak sexuaren arabera banatuta aurkezten dira.

	<b>GAY</b>		
	<b>GUZTIRA</b>	<b>MUTILAK</b>	<b>NESKAK</b>
<i>Ez du ezagutzen</i>	<b>36</b>	26	<b>15</b>
<i>Hurbileko lagunak</i>	<b>42</b>	16	<b>26</b>
<i>Institutuko ikaskideak</i>	<b>70</b>	28	<b>42</b>
<i>Ezagunak</i>	<b>207</b>	101	<b>106</b>
<i>Senitartekoak</i>	<b>39</b>	14	<b>25</b>
<i>Irakasleak</i>	<b>103</b>	63	<b>40</b>
<i>Pertsonaia historikoak</i>	<b>223</b>	93	<b>130</b>
<i>Telebistako pertsonaiak</i>	<b>504</b>	268	<b>236</b>
<i>Ez du hitzik ulertzen</i>	<b>0</b>	0	<b>0</b>

Ikusten dugu neskek eta mutilek gizonezkoen homosexualitatearen inguruan antzeko erreferentziak eduki arren, mutilek neskek baino gehiagotan adierazten dutela ez dutela pertsona gayrik ezagutzen, baina bestetik, generoaren rolean oinarrituta, ikastetxeko lagunei “etiketa jartzeko” ohitura gehiago dute, neskek baino askoz errazago. Bi sexuetoako gazteen artean gizonezkoen homosexualitateari buruzko erreferentziarik nabarmenena telebistako pertsonaiek eskainitakoa da.

	<b>LESBIANAK</b>		
	<b>GUZTIRA</b>	<b>MUTILAK</b>	<b>NESKAK</b>
<i>Ez du ezagutzen</i>	<b>102</b>	70	<b>32</b>
<i>Hurbileko lagunak</i>	<b>60</b>	15	<b>45</b>
<i>Institutuko ikaskideak</i>	<b>38</b>	9	<b>29</b>
<i>Ezagunak</i>	<b>92</b>	40	<b>52</b>
<i>Senitartekoak</i>	<b>8</b>	1	<b>7</b>
<i>Irakasleak</i>	<b>52</b>	17	<b>35</b>
<i>Pertsonaia historikoak</i>	<b>28</b>	12	<b>16</b>
<i>Telebistako pertsonaiak</i>	<b>175</b>	78	<b>97</b>
<i>Ez du hitzik ulertzen</i>	<b>0</b>	0	<b>0</b>



Gizonezkoen homosexualitatearekin gertatzen den moduan, lesbianismoaren kasuan ere, gazteek jasotzen duten erreferentziarik nagusia telebistako pertsonaiek ematen dietena da, nahiz eta gizonezko homosexualen erreferentziak baino askoz ere kopuru txikiagoan, gutxi gorabehera hiru aldiz gutxiago.

Ikaskideen artean gayak baino askoz ere lesbiana gutxiago ezagutzen dituzte gazteek, baita beren irakasleen artean ere.

Oro har, esan dezakegu erreferentzia lesbikoak gizonezko homosexualen erreferentziak baino askoz ere gutxiago direla.

**BISEXUALAK**

	<b>GUZTIRA</b>	<b>MUTILAK</b>	<b>NESKAK</b>
<i>Ez du ezagutzen</i>	<b>360</b>	<b>200</b>	<b>160</b>
<i>Hurbileko lagunak</i>	<b>27</b>	<b>9</b>	<b>18</b>
<i>Institutuko ikaskideak</i>	<b>17</b>	<b>8</b>	<b>9</b>
<i>Ezagunak</i>	<b>70</b>	<b>46</b>	<b>24</b>
<i>Senitartekoak</i>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<i>Irakasleak</i>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<i>Pertsonaia historikoak</i>	<b>3</b>	<b>0</b>	<b>3</b>
<i>Telebistako pertsonaiak</i>	<b>78</b>	<b>39</b>	<b>39</b>
<i>Ez du hitzik ulertzen</i>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>


**TRANSEXUALAK**

	<b>GUZTIRA</b>	<b>MUTILAK</b>	<b>NESKAK</b>
<i>Ez du ezagutzen</i>	<b>510</b>	<b>269</b>	<b>241</b>
<i>Hurbileko lagunak</i>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<i>Institutuko ikaskideak</i>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<i>Ezagunak</i>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>0</b>
<i>Senitartekoak</i>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<i>Irakasleak</i>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<i>Pertsonaia historikoak</i>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<i>Telebistako pertsonaiak</i>	<b>70</b>	<b>35</b>	<b>35</b>
<i>Ez du hitzik ulertzen</i>	<b>33</b>	<b>18</b>	<b>15</b>





### GAY, LESBIANA, BISEXUAL ETA TRANSEXUALAK EZAGUTZEN DITUZTE




Pertsona bisexualak ezagutzearen inguruan, berriz, azpimarratu beharra dago neskek pertsonalki ezagutzen dituztenen kopurua, hurbileko lagunen kasuan, gizonezko edo emakumezko homosexualen inguruan agertutakoa baino handiagoa dela.

Transexualitateari dagokionez, ezjakintasun maila oso zabala da eta modu berdintsuan mantentzen da parametro guztietan, bai mutilentzat eta bai nesKentzat ere.


Bisexualitatearen inguruan nola transexualitatearen inguruan dituzten erreferentzia urriak tebibestatik jasoak dira.

### 3-4.- Hirugarren eta laugarren galderak

Bi gizonzkoren arteko edo bi emakumezkoren arteko maitasun-adierazpen publiko baten aurrean duten iritzia ematea eskatzen zaie. Emaitza hauek izan dira.



### BI EMAKUMEREN ARTEKO MAITASUN-ADIERAZPENEN INGURUKO IRITZIA




Galdera hauei emandako erantzunetan argi ikus daiteke pertsona homosexualen arteko maitasun-adierazpenek nesken artean onarpen maila handiagoa dutela, maitasun-adierazpen horiek gizonen artekoak izan nahiz emakumezkoen artekoak izan.

Mutilek emandako erantzunei dagokienez, aldiz, ikus dezakegu onarpen maila handiagoa dutela maitasun-adierazpen lesbikoen gizonen arteko maitasun-adierazpenek baino. Datu horren sustraian, agian, bi emakumeen irudiak gizonen heterosexualentzat duen indar erotikoa handia egon daiteke, eta, baliteke, halaber, kultura-patroi konplexuek ezarritako sexualitatearen ikuspegi bat ere egotea.

## 5. Bosgarren galdera

*Zuzena al da norberaren sexu bereko pertsonak gustuko dituzten pertsonak mespretxuz tratatzea?*  
 Horixe da honako honetan egiten den galdera. Emaitza hauek lortu dira:




Ikus daitekeen moduan 10 gaztetatik 9,4k ez dute zuzen ikusten homosexualitatea pertsonen mespretxu egiteko faktoretzat hartzea, baina datu hori kontraesan dago tratatu homofobikoaren egile gisa gazteek aitortzen dituzten datuekin. Azpimarratzekoa da pertsona homosexualenganako mespretxua zuzen ikusten dutenen ehunekoa mutilen artean handiagoa dela nesken artean baino.



## 6. Seigarren galdera

Galdera honen bidez, irakasle batek bere homosexualitatea argi eta garbi adieraziko lukeen balizko kasu batean hartuko luketen jokabidea ezagutu nahi da.

	GUZTIRA	MUTILAK	NESKAK
<i>Isekarako motibo</i>	<b>25</b>	<b>20</b>	<b>5</b>
<i>Gay, lesbiana, bisexual eta transexualek ez lukete irakasle izan behar</i>	<b>18</b>	<b>16</b>	<b>2</b>
<i>Nire familiari esango nioke ikastetxean kexa bat jarri zezaten</i>	<b>3</b>	<b>3</b>	<b>0</b>
<i>Garrantzitsuena irakasle ona izatea da</i>	<b>531</b>	<b>272</b>	<b>259</b>
<i>Ongi hartuko nuke, gauza askotan lagundu egingo lidakeela uste dudalako</i>	<b>23</b>	<b>11</b>	<b>12</b>







Bai mutilek eta bai neskek ere, irakasle batek profesional gisa duen gaitasun eta kalitatea balioesten dute nagusiki, hark duen sexu-orientazioaren gainetik. Halere, inkesta bete duten gizonezkoetatik % 6k irakasle baten homosexualitatea isekarako motibo dela uste dute, eta ia % 5ek uste dute irakasle homosexual batek ez lukeela irakasle izan behar.

## 7. Zazpigarren galdera


Galdera honek hiru atal ditu. LGTB pertsonak (lesbiana, gay, transexual eta bisexualek) jasotzen duten tratua inguruan galdetu diegu ikasleei, hiru alor desberdinetan: familia, ikastetxea eta gizartea oro har.



### IKASTETXEAN LGTB PERTSONEI EMATEN ZAIEN TRATUAREN INGURUKO IRITZIA



### GIZARTEAN LGTB PERTSONEI EMATEN ZAIEN TRATUAREN INGURUKO IRITZIA





Ikus daitekeen moduan, familia alorrean berdintasunezko tratua bat ematen dela uste dute gehienek (10etik 6,8k), baina bestetik, asko dira (% 16,58) tratua hori gutxiesgarria dela irizten dutenak.


Gauza garbia dirudi gazteek badakitela eskola-ingurunea ez dela inondik ere ingurune seguru bat, kontrakoa baizik, LGTB ikasleentzat batez ere (% 73,73). Gizarteak pertsona LGTBei eskaintzen dien tratuari buruzko iritzietan ere antzeko datuak ikus daitezke, nahiz kasu honetan zertxobait apalagoak diren, % 66. Azpimarratzekoa da nesken ustez gizartea zuzenagoa dela LGTB pertsonekin, mutilen ustez baino; nesken artean % 39k uste dute berdintasunezko tratua dagoela gizartean, eta aldiz, mutilen artean % 16 bakarrik dira horrela uste dutenak.

## 8. Zortzigarren galdera

Galdera honetan beren laguna gay, lesbiana, bisexuala edo transexuala dela jakingo balute nolako erreakzioa edukiko luketen galdetzen diegu.

Ondorengo aukerak eskaintzen dizkiegu:

- Tokiz aldatzen ahaleginduko nintzateke
- Ez nuke ezer egingo, baina deseroso samar sentituko nintzateke
- Ez nuke nire jokabidea aldatuko, denak berdín jarraituko luke
- Pertsona horrekin konfiantza gehiago sentituko nuke eta lagundu egingo nioke
- Pertsona horrekin ligatzen ahaleginduko nintzateke
- Ed/Ee



Lehenago ere gertatu den modu berean, mutilen eta nesken jokabideen artean desberdintasun esanguratsu bat ikus dezakegu. Neska gehienek ez luketela jokabidez aldatuko erantzuten duten






bitartean (% 55,68), mutilen artean % 25,08k bakarrik uste dute ez luketela beren jokabidea aldatuko eta denak berdín jarraituko lukeela. Aipatzekoa da, halaber, mutilen artean % 11 inguruko ehuneko bat aldatuko litzatekeela tokiz ikaskide gay baten aldamenean ez egoteagatik, edo hori egingo ez balute, % 31 deseroso sentituko liratekeela. Badirudi, beraz, gizonezkoen homosexualitatearen inguruan mutilek eta neskek dituzten iritzi desberdinak egiaztatzen direla, eta iritzi horiek onartzen zailagoak direla mutilen kasuan.


Hala eta guztiz ere, emakumezko ikaskide baten homosexualitatearen aurrean lekuz aldatuko liratekeen nesken kopurua lau aldiz handiagoa da, eta gutxi gorabehera nesken artean bi aldiz gehiago dira deseroso sentitzen direnak ikaskide lesbiana baten aldamenean eserita, ikaskide gay baten aldamenean eserita baino. Nesken % 5ek lehenago lagunduko lioke gay bati, lesbiana bati baino. Beren ikaskidea gay dela ezagututakoan ezer aldatuko ez litzatekeela uste duten nesketatik % 3k diote jarreraz aldatuko luketela beren ikaskidea lesbiana izango balitz.

Gizonezkoen homosexualitatearen aurrean mutilek agertzen dituzten aurreiritziak nabarmenki leuntzen dira emakumezkoen homosexualitatearekin alderatuta. Horrek pentsarazten digu nerabeek homosexualitatearen aurrean agertzen duten jokabidea, bai nesken eta bai mutilen artean ere, aurreiritzi eta estereotipo kulturaletan oinarrituta dagoela, eta nesken kasuan, gay bat ikaskide “idealizatua” dela pentsarazten die horrek. Hori dela eta, mutilen % 25i ez litzaioke axola izango ikaskide gay bat edukitzea, eta aldiz, kopuru horren bikoitzari (% 50,15) ez litzaioke axola izango ikaskide lesbiana bat edukitzea. Deseroso sentituz gero, mutil gay batekin deseroso sentitzen diren mutilak neska lesbiana batekin deseroso sentitzen direnak baino hiru aldiz gehiago dira.






## IKASKIDE BISEXUAL BATEN AURREKO ERREAKZIOA



## IKASKIDE TRANSEXUAL BATEN AURREKO ERREAKZIOA





Aldamenean duten pertsonak bisexuala dela esango balie izango luketen erreakzioa azaltzeko orduan, berriro ere emaitzak desberdinak dira, eta jarrerarik itxienak mutilen artean topatzen ditugunak dira. Azpimarratzekoa da bisexualenganako berdintasunezko tratua aukeratzen duten nesken portzentajea (% 50,71) aukera hori hautatu duten mutilena baino bi aldiz handiagoa dela ia.


Beren ikaskidea transexuala dela suposatuz gero, jokabide negatiboak nabarmenki handitzen dira. Mutilen % 36,70ek diote ez liratekeela eroso sentituko ikasgelan transexual bat balute, eta inkesta egin duten mutilen artetik horienganako babes % 7,95eraino jaisten da, gay, lesbiana edo bisexualari eskaintako babes-espektatiben oso azpitik; horiek guztiak % 20tik gorakoak baitira.

## 9. Bederatzigarren galdera

Galdera honetan eskatzen diegu pentsa dezatela gay, lesbiana, bisexual edo transexual direla edo gainerakoek hala pentsatzen dutela, eta zehaztu dezatela beren ustez nolako jarrera jasoko luketen lau alor desberdinetan (familia-alorrean, lagunartean, ikastetxeko irakasleen artean eta ikastetxeko ikaskideen partetik).


Ondorengo jarrerak proposatzen dizkiegu:

- Jo egingo ninduten edo jipoi bat emango zidaten
- Baztertu egingo ninduten
- Gaia ahaztuko zuten
- Ez dakit nola erreakzionatuko zuten
- Lagundu egingo zidaten
- Alda nendila saiatuko ziren
- Ez daki edo ez du erantzuten







### LAGUNEN ERREAKZIOA LGTB BANINTZ



### IRAKASLEEN ERREAKZIOA LGTB BANINTZ





Bi sexuetao gazteentzat familia izango litzateke LGTB pertsonentzat ingururik aldekoena, nahiz eta horien artetik % 40,23k ez dakiten nola erreakzionatuko zuen beren familiak.

Ikus daitekeenez, mutilek baino babes handiago sentitzen dute neskek beren lagunen partetik; izan ere, bere lagunen aldetik baztertuak sentitzeko arriskua handiagoa dela ikusten baitute mutilek, neskek baino.

Gehienek ez dakite nolakoa izango litzatekeen irakasleen erreakzioa edo uste dute ez lioketela garrantzirik emango gai hori. Ikastetxeko beren ikaskideek izango luketen erreakzioari dagokionez, neskek uste dute beren lagunen aldetik jasoko luketen babes bi aldiz handiagoa dela, eta baztertuak izatearen arriskua erdira murriztuko litzateke, mutilekin alderatuz gero.

Hiru gaztetatik batek ia ez du imajinatzen bere ikasgelako lagunen erreakzioa, baina jabetzen dira homofobiaz, arestian aipatu bezala.


Irakasleen babesaren inguruan zalantzak dituzte. % 14,44k bakarrik dute konfiantza babes horretan. Lau alor horietan jasoko luketen babesaren inguruan ziurtasun gehiago dute neskek.

## 10. Hamargarren galdera

Jarraian ikasleei eskatu genien esan ziezagutela zer gairen inguruan nahiko luketen informazio gehiago erdietsi.

Aukera batzuk ematen dizkiegu:

- *Sexualitatea*
- *Dibertsitate sexuala (homosexualitatea, lesbianismoa, bisexualitatea, transexualitatea).*
- *Maitasun-erlazioak eta/edo bikote-harremanak*
- *Familia-eredu desberdinak*
- *Beste gai batzuk*



Ikus daitekeenez, bai mutilek eta bai neskek ere sexualitateari eta maitasun-erlazioei eta/edo bikote-harremanei buruzko informazio gehiago eskatzen dute nagusiki.

Beste gai batzuk jorratzen dituztenean, metodo antikontzeptiboez, GIB-HIESaz... hitz egiten dute.





## 11-12. Hamaikagarren eta hamabigarren galderak

Puntu honetan galdetu egin diegu non eskuratzten duten sexualitateari eta bikoteari buruzko informazioa eta informazio hori nork ematea nahiko luketen. Emaitza hauek lortu dira.

Ondorengo aukerak proposatu dizkiegu:

- Ama/Aita
- Anai-arrebak edo beste senitarteko batzuk
- Bikotea
- Irakasleak edo institutuko langileak
- Lagunak eta ikaskideak
- Telebista/Irratia/liburuak/aldizkariak
- Internet
- Parrokia edo erlijio-taldea
- Inor ez
- Bestelakoak





### 13. Hamahirugarren galdera


Eskatu diegu proposatu dizkiegun aukera horietakoren bat hautatu dezatela ikaskideren batek bere aita gay dela edo bere ama lesbiana dela esanez gero. Eraitza hauek lortu dira. Ondorengo aukerak proposatu dizkiegu:

- Ez dut gustuko horrelako jendea izatea eta halaxe esango nioke
- Mundu guztiari esango nioke, haren kontura barre egiteko
- Harekin harremana izateari utziko nioke
- Haren lagun izaten jarraituko nuke, baina inori ez esateko eskatuko nioke.
- Ez nuke ezertan aldatuko pertsona horrekin dudan harremana
- Niri esateko konfiantza agertu izana eskertuko nioke eta lagundu egingo nioke, beharko balu.





### IKASKIDEAREN AITA/AMA GAY EDO LESBIANAREN AURREKO JARRERA



Gazteen artetik % 80k baino gehiagok uste dute xehetasun horrek ez duela eraginik izango beren ikaskidearekin duen harremanean.

Babesaren balioa nabarmenki handiagoa da nesken kasuan, mutilen kasuan baino, eta jarrerarik ezkorrenak nagusiki gizonaenak dira

% 16,82k adiskidetasunerako baldintza gisa jarriko lukete beren ikaskidearen aitaren edo amaren homosexualitatearen inguruan isilik egotea.




## 14. Hamalagarren galdera

Puntu honetan zortzi familia-eredu desberdin proposatzen dizkiegu eta beren iritziz familiazat jo daitezkeen ereduak hautatu ditzatela eskatzen diegu.

Proposatutako ereduak hauek dira:

- Ama ezkongabe bat eta bere seme-alabak
- Gizon dibortziatu bat seme-alabekin, seme-alabak dituen beste emakume batekin ezkondua
- Gizon batek eta emakume batek osatutako bikotea seme-alabarik gabe
- Emakumeen bikote bat eta beren seme-alabak, ezkondu gabe elkarrekin bizi direnak
- Gizon batek semetzat hartu duen haurra
- Gizon batek eta emakume batek osatutako bikotea beren seme-alabekin
- Gizon-bikote ezkondu bat seme-alabarik gabe
- Bikoterik ez duen eta bakarrik bizi den pertsona bat






Familia-dibertsitatearen kontzeptua neskek mutilek baino hobeto ulertzen duten arren, ehunekoen bidez emandako datu horiek frogatzen dute gure nerabeek argi dakitela familia ez dela tradizionala bakarrik, baizik eta familia-eredu desberdinak daudela eta egon badaudela. Familiatzat hartzeko aukera handirik ez duen eredu bakarra bikoterik ez duen eta bakarrik bizi den pertsona horri dagokiona da, % 22.

## 15. Hamabosgarren galdera

Galdera honen bidez eskatzen diegu azal dezatela nork sortzen dien erakarpn fisikoa eta/edo maitasunezkoa.

Ondorengo aukerak eskaintzen dizkiegu:

- *Beti mutilek*
- *Gehienetan mutilek eta batzuetan neskek*
- *Neskek eta mutilek berdin*
- *Gehienetan neskek eta batzuetan mutilek*
- *Beti neskek*
- *Ez dut garbi*
- *Nahiago dut galdera honi ez erantzun*
- *Ed/Ee*



Nerabezaroa, hain zuzen ere, gure nortasuna sexu-orientazio jakin baten arabera eraikitzen dugun bizitzako aroa da. Auto-ukapenaren garaia ere bada, orientazio hori gugandik espero omen dutenarekin, hots, heterosexualitatearekin bat ez datorrenean. Nerabeek homosexualitatearen oso aldeko ez den gizarte-ingurune bat erakusten digute, baita argi eta garbi homofobia ere batzuetan; eta beraz, ez dugu harritu behar beren buruak nagusiki heterosexualizat sailkatzen badituzte. Nerabezaroa eraikuntza-aro bat dela dakigunez gero, sentikortasun berezia erakutsi behar diogu galdetegi honetan ondorengo aukerak hautatzen dituen lagin-portzentajeari: “Ez daukat garbi”, “Nahiago dut ez erantzun” eta “ED/EE”; laginaren % 7,02.